

# BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

## 1. Aurkezpena

## 2. Adierazleen koadroa

## 3. Euskadiko panoramika

## 4. Arabako panoramika

## 5. Bizkaiko panoramika

## 6. Gipuzkoako panoramika

## 7. Datu base interaktiboa

### Demografia eta biztanleria

- EUSTATen datuen arabera, 2015eko urtarrilaren 1ean, 15 eta 29 urte bitarteko 147.686 gazte zeuden Bizkaian. Datu hori esanguratsuagoa da 2000ko datuekin alderatuta, urte hartan 15 eta 29 urte bitarteko 248.585 pertsona baitzeuden.
- Gazteen indizea, hau da, biztanle guztietatik zenbat diren 15 eta 29 urte bitartekoak, beste minimo historiko batera jaitsi da Bizkaian; hots, % 12,9. Indize hau ia 10 puntu jaitsi da 2000ko % 22,1etik. Europa osoan nekez topako dugu gazteen indize baxuagoa daukan lurralderik.
- Gazteen atzeritarren kopurua ere murriztu da Bizkaian eta 2015ean 17.820 pertsonakoa da.
- 2015eko Bizkaiko gazteen migrazio-saldoa positiboa da, 1067 lagunekoa hain zuzen ere.
- 64 urtetik gorakoek gainera gazteen ratioak txikitzen jarraitzen du, bizi-itzaropena handitzen den hein berean. 2015ean, Bizkaian, 59,8 gaztekoa da indizea 64 urtetik gorako 100 nagusiko. Beheranzko joera antzematen da 2000tik, argi eta garbi, urte hartan 149,8koa baitzen; hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona gehiago zegoen, 64 urtetik gorakoak baino. Bizkaia da hiru lurralde historikoen artean, biztanleria zahartuena duena.
- Lehenbizikoz ama izateko batez besteko adina gero eta altuagoa da, eta 32 urtetik hurbil dago Bizkaiko nesken artean (31,9).

### Hezkuntza

- 2014an, Bizkaian eskola uzten dutenen tasa (alegia, 18 eta 24 urte bitarteko biztanleetatik zenbatek amaitu duten gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baina, inkestari erantzun aurreko lau asteetan, ez duten bestelako ikasketa edo prestakuntzarik jaso) % 8,4koa zen. Euskadiko batez bestekotik (% 7,5) nahiko goragoa agertzen da Bizkaia.
- Bigarren Hezkuntza amaitu dutenen tasak pixka bat gora egin du Bizkaian dagoeneko. 2014an % 85ak behintzat Bigarren Hezkuntza amaitua zuten Bizkaian.
- Goi-mailako hezkuntzako titulazioa lortzen dutenen kopuruak (hau da, 30 eta 34 urte bitarteko zenbat gaztek duten hirugarren mailako titulazioa, unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-zikloetakoa) % 47,5ean dago Bizkaian 2014. Joan den aurretik gorakada itzela izan du gainera, orduan % 39,7 baitzen.
- Euskararen jakite-mailak gora egin du Bizkaian, % 57,7tik (2009) % 60,4ra (2014). Hala ere, Euskadiko batez bestekotik behera dago.
- Ingelesaren jakite-mailari dagokionez, , hau da, ingelesez ondo berba egiten dutenen portzentajea, goraka doa Euskadin eta baita Bizkaian ere. 2014an % 53,2ra heldu da 15 eta 29 urte bitartekoen artean. Portzentaje honek gora egin du 200ko % 44tik.
- Euskararen eta ingelesaren jakite-mailak gora egitearen ondorioz, hiruletasun-tasa (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek egiten duten ondo euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) % 19,9tik (2009) % 27,7ra (2014) pasatu da Bizkaian.

## BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

### 1. Aurkezpena

### 2. Adierazleen koadroa

### 3. Euskadiko panoramika

### 4. Arabako panoramika

### 5. Bizkaiko panoramika

### 6. Gipuzkoako panoramika

### 7. Datu base interaktiboa

#### Enplegua eta egoera ekonomikoa

- 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen jarduera-tasa % 51,4koa da; hau da, Euskadiko gazteen erdiak baino gehiago lanean ari dira, edo lan egiteko prest daude. Bizkaia batez bestekoaren azpitik dago, % 50,2ko jarduera-tasa izanik.
- Bizkaiko enplegu-tasa (hau da, zenbat pertsonak duten lana) Euskadiren batez bestekotik behera dabil (% 35,7 eta % 37,1).
- Euskadiko gazteriaren langabezia-tasa 2014an % 29,5 era igo zen baina handik behera egin du 2015ean % 27,9 arte. Bizkaian enplegu-tasa % 28,9koa da.
- Iraupen luzeko langabezia-tasa (hau da, zenbat gaztek daramatzaten hamabi hilabete baino gehiago jarraian lanik gabe) Bizkaian % 11,9koa da.
- Lanaldi partzialean ari dira Euskadin lanean ari diren gaztetik ia herena (% 30,7) eta egoera hau Bizkaian are eta gehiago gertatzen da (% 33,1).
- Bizkaiko 15 eta 29 urte bitarteko % 52,3k uste du hurrengo urtean lanpostua galtzeko edo lan-baldintzak prekarizatzeko arriskua dagoela.
- Bizkaian, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia, hilean, 956,64 eurokoa da. Hiru lurralde historikoen artean, Bizkaiak ditu soldatarik baxuenak gazteei dagokienez, Arabako gazteek baino 110 euro inguru gutxiago, hain zuzen ere.
- 16 eta 34 urteko 1000 landueneko ezbehar tasa Bizkaian 36,4koa da.
- Bizkaiko gazte landunen % 49,9k diote beren lana oso edo nahiko lotuta dagoela duten prestakuntzarekin.
- Ikasketak amaitu eta prestakuntza akademikoari lotutako lana aurkitzeko itzaropena handia da Bizkaian, % 63,3k hala uste du eta. Araban % 59,5k hala uste du eta Gipuzkoan % 70,4k.
- Bizkaian, nahitaez atzerrira emigratzeko probabilitatea % 13,7koa da.

## BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

### 1. Aurkezpena

### 2. Adierazleen koadroa

### 3. Euskadiko panoramika

### 4. Arabako panoramika

### 5. Bizkaiko panoramika

### 6. Gipuzkoako panoramika

### 7. Datu base interaktiboa

#### Emantzipazioa eta etxebizitza

- 2015ean, Bizkaiko 18 eta 34 urte bitartekoen emantzipazio-tasa % 40,9koa da. Bizkaiko gazteen emantzipazio-tasa 2015ean Euskadikoaren parekoa da.
- Azken datuaren arabera (2011), emantzipatzeko batez besteko adina Bizkaian 30,8 urtekoa da. Balio hau Espainiakoa (28,5) baino zertxobait altuagoa da eta 28en EBko beste estatu kide batzuetakoa baino askoz handiagoa ere, besteak beste, Suedia (20,3), Danimarka (21,0) eta Finlandia (21,9).
- Gazteak emantzipatu ahal izateko eragozpen handiena etxebizitza eskuratzea da (jabetzan edo alokairuan), eta, horrekin batera, lan-egonkortasuna eta prekarietatea egotea. Horrela, 2015ean, Bizkaian, etxebizitza jabetzan eskuratzea diru-sarreraren % 52,2 kostatzen zaie bakarrik emantzipatu nahi duten 18 eta 34 urte bitartekoei.
- Etxebizitza alokairuan eskuratzearen kostua Bizkaian jabetzan eskuratzearena baino are handiagoa da. Horrela, 18 eta 34 urte bitarteko Arabako gazteek beren diru-sarreraren % 64a bideratu beharko lukete alokairua ordaintzera.
- 2015ean, Bizkaian emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 55,8 alokairuan bizi ziren. Azken bi hamarkadetakoa bilakaera aztertuz gero, aldaketa nabaria dago emantzipatzeko moduan; 1991n, 18 eta 34 urte bitarteko Bizkaiko pertsonen % 9,1 soilik bizi baitziren alokairuan. Bizkaia da alokairuan bizi diren gazte gehien dituen lurraldea.
- Etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunek (hau da, emantzipatutako zenbat pertsonak dituzten zailtasunak etxebizitzaren gastuak ordaintzeko, tartean alokairua, hipoteka-kuota, argi edo uraren ordainagiriak, etab.) emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitartekoen % 26,2ri eragiten diete Bizkaian 2015ean. Portzentaje hori apur bat txikituta da 2013tik; urte hartan, etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunak zituztenen portzentajea % 25,6koa zen.
- Bizkaian emantzipatutako gazteen % 26,7k diru-sarreraren % 40 bideratzen dute etxebizitza-gastuak ordaintzera, eta horrek ahalegin ekonomiko handiegia egitea dakarkie. Portzentaje hau Arabakoaren baino 10 puntu handiagoa da.
- Emantzipatu ondoren sortutako arazo ekonomikoak direla medio gurasoen etxera itzuli behar izan duten Bizkaiko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen portzentajea % 3,9koa izan zen 2015ean.
- Emantzipazioa zapuzteko aukerak (hau da, zenbatek ezin izango duten emantzipatu, nahi izanda ere, eta zenbatek itzuli beharko duten, nahitaez, gurasoen etxera), gora egin du Bizkaian 2014 eta 2015 artean, % 52,1etik % 53,9ra.
- Bizkaian emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean alokairuaren aukerak gora egiten du emantzipatu nahi izanez gero. 2013an % 39,1 ziren baina 2015ean % 53,5era heltzen da.

## BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

### 1. Aurkezpena

### 2. Adierazleen koadroa

### 3. Euskadiko panoramika

### 4. Arabako panoramika

### 5. Bizkaiko panoramika

### 6. Gipuzkoako panoramika

### 7. Datu base interaktiboa

#### Osasuna

- EAEko gazteek beren osasunaz duten pertzepzioak egonkor jarraitzen du, baina joera positiboa hartu du azken urteotan. 2002an, Euskadiko gazteen % 5,8k uste zuen ez zutela osasun ona (erdipurdikoa, txarra edo oso txarra), baina 2013an portzentaje hori % 4,6ra jaitsi da. Bizkaian beraien osasuna txartzat hartzen duten gazteen kopurua % 4,4koa da.
- Osasun-arazo kronikoen portzentajeak gora egin du Bizkaiko gazteen artean, 2007ko % 18,6tik 2013ko % 23,9ra pasatu baita.
- Osasun mentalari dagokionez, Bizkaiko gazteen % 13,3k diote noizbait izan dutela antsietate edo depresioa, Euskadiko batez bestekotik zertxobait behera (% 13,7).
- Bizkaiko gazte gehienek (% 74,5) egiten dute astero jarduera fisikoren bat, bizia edo neurrizkoa.
- Obesitate-tasa kalkulatzeko, formula hau erabiltzen da: pisua (kg-tan) / altuera (m-tan) ber bi. Bizkaiko gazteei dagokienez, tasa hau ia bikoiztu egin da 2007ko % 3,5 eta 2013ko % 6,5 artean. Hiru lurraldeen baliorik handiena dauka Bizkaiak.
- GIB infekzio berriek (adin-talde bereko 10 000 gazteko tasaren arabera kalkulaturakoek) balio txikiak izaten jarraitzen dute. 2015ean, tasa hori Bizkaiko gazteen artean 1,2koa da.
- Haurdunaldia borondatez eten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua (adin-tarte bereko 1000 emakumetik) 12,9koa izan da 2014an Bizkaian. Euskadin, ostera, 11,8koa.
- Haurduntza adoleszenteen tasak 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaio den haur kopurua eta borondatez eten den haurdunaldi kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1000 emakumeko. 2014an tasa hori 7,6koa zen Euskadin eta Bizkaian, handixeagoa, 8,3koa.
- Bizkaiko 15 eta 29 urte bitarteko artean trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa, adin-tarte bereko 100 000 pertsonako, 2,1ekoa da.

#### Aisia, kultura eta kirola

- 2012an Bizkaiko gazteen % 40,7 kontzerturen batean egonak ziren aurreko hiru hilabeteetan.
- % 37,9k aisialdiko jarduera artistikoren bat egin ohi zuten (esaterako, argazkilaritza edo pintura).
- % 50,4k erregularitasunez irakurtzen zuten (libururen bat hilean), nahitaez irakurri beharrekoaz gain. Hiru aspektu hauetan Bizkaia azken lekuan agertzen da.
- 2012an, Bizkaiko gazteen % 35,5ek kirola egiten zuten gutxienez astean hirutan.
- Bizkaiko gazteen % 31,8k astean 15 ordu baino gehiago ematen zituzten Interneten.
- Bizkaian lonja daukaten gazteen portzentajeak 2015ean % 25,6koa da.

## BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

### 1. Aurkezpena

- Bizkaiko gazteek lagunekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, % 30,7k euskara erabiltzen dute. Euskadiko batez bestekotik asko aldentzen da (% 42), batez ere Gipuzkoak lortzen duen portzentajea arrazoi (% 59,3).

### 2. Adierazleen koadroa

### 3. Euskadiko panoramika

### 4. Arabako panoramika

### 5. Bizkaiko panoramika

### 6. Gipuzkoako panoramika

### 7. Datu base interaktiboa

#### Balioak eta jarrerak

- Bizkaiko gazteen % 49,5ek dute beren burua fedegabetzat edo agnostikotzat. Gipuzkoako gazteekiko aldea ia 20 puntukoa da (% 64) baina Arabakoan balioetik zertxobait gorago (% 45,6).
- Bizkaiko gazte gehienei ondo iruditzen zaie sexu bereko pertsonak ezkontzea (% 82,9), sexu-aldaketa egitea (% 79,7), askatasunez eta borondatez abortatzea (% 78,6), eutanasia egitea (% 71,7) eta kanabisa legezkozea (% 59).
- Bizkaiko 15 eta 29 urte bitarteko % 25,9 elkarteren bateko kide da. Portzentaje hau Gipuzkoakoa baino askoz txikiagoa da (% 41,7).
- Bizkaiko gazteek politikan duten interesak gora egin du 2012 eta 2014 artean. Politikan interes handia edo dezente dutenen portzentajea % 19,2tik % 28ra pasa da tarte horretan.
- Bizkaiko gazteen % 66,3k aldaketa soziala nahi duela adierazten du.
- Bizkaiko gazteen % 5,2k borondatezko lana egiten dute.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat emakumek salatu duten beren aurkako indarkeria, adin-tarte bereko 1000 emakumeko) balio konstanteei eutsi die azken urteotan. 2015ean Bizkaian, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeria 7,2koa da.
- Bizkaiko gazteen % 44,4 garraio publikoan egiten dituzte joan-etorriak egunero, Euskadiko portzentajetik handiena.
- Bizkiletan egindako eguneroko joan-etorrietan, aldiz, Bizkaia da portzentajerik xumeena lortzen duena (% 2,1).
- Gogobetetasun pertsonalaren indizea (hau da, nola baloratzen duten gazteek beren egoera) 7,2koa izan da 2015ean Bizkaian.
- Adin hori zutenean gurasoak baino egoera hobean daudela dioten gazteen portzentajea neurtzen duen adierazleak beherako joera du 2008tik Bizkaian beste bi lurraldeetan gertatu den bezala, % 74,2 zenean. 2011n % 61era pasatu zen, 2013an % 45,6ra eta 2015ean % 55,7ra.
- Etorkizunarekiko konfiantza-indizea adierazle sintetiko bat da, eta adierazten du 15 eta 29 urte bitarteko gazteek nola ikusten dituzten bost urte barru beren egoera pertsonala, gazteen egoera eta Euskadiren egoera. Adierazle horren emaitza 0 eta 100 bitartean dago. Bizkaian 2014ko % 72,5etik 2015eko % 74,4era.